

Osteguna, 2010ko irailak 23 - 09:05
Plaza

bilatu...

Bilatu

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)

[Paperekoa](#)
[PDFn](#)
[Iragarki laburrak](#)
[Hitza](#)

Harian | Iritzia | Kirola | Agenda | **Plaza**

Albisterik...

IRAKURRIENAK
Bozkatuenak
Bidalienak

Berria.info » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2010-09-23

Sagarrak biltzen hasteko garaia

Astigarraga.

Urteko lehen muztioa dastatzeko aukera izango da igandean, Sagar Uzta jaiari

NAGORE RODRIGUEZ.
Donostia

Sagardoari lotutako herria da Astigarraga (Gipuzkoa). Harreman estu hori agerian geratuko da berriro ere igandean, hamargarren Sagar Uzta jaiari.

Sagarrak biltzen eta sagardoa egiten hasiak daude jada sagardogileak, eta, hain zuzen ere, dolareetako lanen hasiera ospatzeko egingo dute festa igandean. Sagarraren eta sagardoaren kulturari buruzko jarduerak izango dira egun guztian. Hala, sagarraren azoka eta 2010eko uztako lehen muztioa egiteko prozesua izango dira eguneko ekitaldi garrantzitsuenetako bi. Gainera, Astigarragara bilduko direnek aurtengo uztako lehen muztioa dastatu ahal izango dute.

Berrikuntza batzuk ere izango dira jaiaren hamargarren urteurrenean: Josu Irizar eta Aintzane Olaizolak, sagar kultura kalera eramateko helburuarekin, hiru apainketa egingo dituzte. Besteak beste, saski eta sagarrekin lau metroko dorre bat egingo dute. Gainera, herriko hainbat ostalarik sagarrekin egindako sorkuntzak aurkeztuko dituzte.

Sagar rallyarekin abiatuko dute eguna. Eta, ondoren, haurrentzako tailerrak eta azoka izango dira, 10:30ean. Azokan, sagarrak, sagar muztioa, sagardoa, likoreak eta beste hainbat produktu erosi ahal izango dira, eta, tartean, herriko ostalariek egindako sorkuntzak dastatu ahal izango dira. Ordu erdi geroago hasiko dira urteko lehen muztioa egiten, eta ordubetearen eskainiko diete bisitariei.

«**Uzta bikaina**»

Horretaz gain, kirrikoketa, sagar dantza eta txalaparta emanaldiak ere izango dira Sagar Uzta festan.

Arratsaldean, berriz, kirolen txanda iritsiko da. Sagardogintzan oinarritutako herri kirolak egingo dituzte hirugarren urtez Foru Enparantzan. Eskualdeko sagardogileen arteko sagar bilketan eta sagardoa egiteko prozesuan oinarrituko dira kirolak. Lehia 17:30ean hasiko da.

Sagardo egileak pozik daude aurtengo sagar uztarekin. Izan ere, kantitateari erreparatuz «bikaina» izango dela diote Sagardoetxekoek, sagasti batzuetan inoiz izan duten handiena. Iraileko lehen hamabostaldian Gipuzkoako sagastietan egindako kontroletan ikusi dute hori. Sagarraren heldutasuna, berriz, iazkoaren antzekoa dela zehaztu dute.

SAGAR UZTA

Zer. Azoka, erakusketa, lehen muztioa egiteko lana...

Non. Astigarragan (Gipuzkoa).

Noiz. Igandean.

[Hasiera](#)
[Euskal Herria](#)
[Ekonomia](#)
[Mundua](#)
[Kirola](#)
[Kultura](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Paperekoa](#)

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa

Laguntzaileak:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa